

Prentsa oharra

Herriko hauteskundeak eta ekologia: publizitate guttiago eskatzeko kolektiboa

Bizi!, CADE eta Paysages de France elkarteek Publizitateari EZ taldea osatzen dute Euskal Herrian eta Landetako hegoaldean publizitate guttiago eskatzeko. Herriko hauteskundearen kariatara, herritarrek, elkarteak eta kolektiboak deitzen dituzte hautagaiei presioa egiteko, horiek erabakiak har ditzaten publizitatearen eragin ekologikoak, sozialak eta ingurumenekoak murrizteko.

Publizitatea non-nahi agertzen da espazio publikoan: larrialdi klimatikoaren testuinguruan, ontasunen kontsumoa eragiten du orain murriztu behar delarik. Publizitateak berak energia asko kontsumitzen du, batez ere afitxatze digitalak, eta horrek gehiegizko kontsumoa eta energia hondakinak sortzen ditu. Gainera, iragarki taulak egiteko lehengaiak behar dira eta horien erauzketa, ingurumenaren, langileen eta bertako biztanleen osasunaren kaltetan egiten da.

Ematen duen edukiaren bidez, publizitateak estereotipoak (irudi sexistak) edo osasun publikoko arazoak (alkoholaren edo janari txarraren iragarkiak ikastetxeen aitzinean) zabaltzen laguntzen ahal du. "Iragarkiak gure bizimodua itsusten eta normalizatzen du" gehitzen du Beñatek, Publizitateari EZ taldea kideak. Halaber, iragarki taulen kokalekuaren arabera, haur karrosendako eta gurpil aulkiendako segurtasun edo errazbide arazoak sor ditzake.

Tokiko herrien arteko Publizitate Araudiaren bidez, herriek, herri elkargoak eta Mugikortasunen sindikatuak beharrezko eskumenak dituzte, araudiari dagokionez, espazio publikoan publizitatearen lekua mugatzeko, horrez gain edukian eragina ukan dezakete hirietako altzarien kontratuen klausulak berrikusiz.

Publizitateari EZ taldea parte hartuko du Tokiko Publizitate Araudiak garatzen eta interpelazio ekintzak burutuko ditu Euskal kostalde / Aturri eremuko herrietako hauteskundeetan aurkezten diren hautagaiei eskatzeko arazo honi buruz jarrera bat har dezaten.

Publizitatearen ugaritzeak eragiten dituen ondorio kaltegarrien kontra jokatu nahi duten herritar, elkarte edo kolektibo guzietan dei egiten die kolektiboan sartzeko.

Prentsa kontaktua:

Dominika, 06 31 90 61 15, stoppub-pba@riseup.net